

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: 2025 urteko Udal egutegia eratzeko Argazki Lehiaketaren oinarriak

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Oinarri hauen helburua da argazki lehiaketa bat antolatzea, 2025eko egutegian 13 argazki sartzeko. Epaimahaiak hautatutako argazkiak sarituko dira, horiek arautzen direnarekin bat etorriz.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

. PARTEHARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

- Parte hartu nahi duen ororentzat irekia.
- Ezinbestekoa da argazkiak Beasaingo udalerrian ateratakoak izatea edota gunea Beasain dela argazkian bertan argi ikusaraztea.
- Argazkiak gaur egungoak edo aspaldikoak izan daitezke.
- Egileak ezin izango du erabili saritutako argazkia honen berri jakinarazten zaionetik saria jaso arte.
- Modalitatea: zuri beltzean naiz koloretan, berdina da.
- Lanak: Gehienez 4 lan egile bakoitzeko. Aldez aurretik argitaratu gabekoak edota beste lehiaketetan saritu gabekoak.
- Emate formatua: argazkiek formatu etzana izango dute. Irudiak JPG formatuan egon behar dira, 2500px alde zabalena, 250 ppp eta RGB kolore espazioan. Fitxategiak ezin ditu 6 Mega pasa.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Jasotako argazkietatik hamabi aukeratuko dira 2025 urtean Beasaingo Udalak argitaratuko duen egutegian erabiltzeko eta hamahirugarrena azalerako. Hamahiru argazki hauek 60na euroko saria jasoko dute.

4. Eskakerak non eta noiz aurkeztu

Epea: Azken eguna, 2024ko irailaren 30a.

Modua:

- Bai argazki bidalketa, bai izen ematea era digitalean egingo da Udalak asmo horretarako espresuki argitaratu duen formularioa erabiliz.
- Web helbidea: www.beasain.eus
- Honakoa eskatuko da: izen-deiturak, NAN, helbide osoa, telefono zenbakia, e-maila, argazkiaren zenbakia, izenburua eta deskribapena.
- Fitxategiaren izena argazkiaren zenbakiarekin hasi behar du eta argazkiaren izenburuarekin jarraitu. Adib:

- 1_Fiestas del barrio Igartza-Loinatz.jpg
 - 2_Arriarango urtegia.jpg
 -
-
- Argazki bakoitzak azalpen edo deskribapen labur bat behar du.
 - Haurren irudiak baleude eta horiek ezagutzeko moduan azaltzen balira, ezinbestekoa da egile bakoitzak argazkian ateratzen diren 14 urte azpikoen haurren gurasoen, tutoreen edo arduradun legalen baimena idatziz bidaltzea irudi horiek publikatu ahal izateko. Argazkian ateratzen den adingabea 14 - 18 urte bitartekoa bada, adingabeak, berak, idatzitako baimena helaraziko du argazkiaren egileak. 18 urtetik gorakoek ere oniritzia idatziz emango dute argazkiaren egilearen bidez.